

GURE EGOERA:

Neutraltasun klimatikora eramango gaituen eta, aldi berean, gero eta handiagoa den energia eskaria (industria, elektrizitatea, garraioa, ...) asetuko duen **trantsizio energetiko** bat behar dugu. Beraz, ezinbestekoa da eskura ditugun **emisiorik gabeko sorkuntza-iturri** guztiak erabiltzea, berriztagarriak eta nuklearra. Erregai fosilak erretzea (ikatz, gas naturala eta petrolio) ondorio kaltegarriak ditu ingurumenean eta giza osasunean, esate baterako, 2020an 3,5 milioi heriotza goiztiar gertatu ziren airearen kutsadura dela eta.

ALMARAZEKO ZENTRAL NUKLEARRA:

Caceres-en (Extremadura) lokatuta dago eta 40 urte baino gehiago funtzionamenduan daramaten bi errektore nuklear ditu, modu **seguruan, fidagarrian eta ingurumena eta pertsonak errespetatuz** jarduten dutenak.

- **Energia sorkuntza:** **urteko eskari elektrikoaren %7a** asetzen du, **4 milioi etxeren** kontsumoaren baliokidea, sistema elektriko nazionalean ekarpenik handiena egiten duen instalazioa izanik.
- **Eskuragarritasuna:** 2023an, **urteko orduen %95a** gehienezko potentzian jardun zuen, energia iturri honen fidagarritasuna eta egonkortasuna islatuz.
- **Energia garbia:** 2023an, **7,2 milioi tona CO₂** isurtzea saihestu zuen, hau da, Espainiako sistema elektrikoaren emisio netoen %25a.
- **Segurtasuna:** Operadore Nuklearren Mundu Elkarteak (WANO) herrialde ezberdinetan jarduten duten ehundaka zentral aztertzen ditu, eta **maila altuenean** kokatzen du Almarazeko zentrala, segurtasun eta funtzionamendu estandar bikainak dituelako.
- **Kostua:** epe luzean, herrialde askotan 80 urterainoko funtzionamendua aurreikusten da. Zentral nuklearrak elektrizitatea ekoizteko modurik **merkeenetako** bat dira.
- **Enplegua:** **2.900 lanpostu** inguru sortzen ditu, zuzenen, zeharkakoen eta induzituen artean; gainera, karga-aldietan (errektore bakoitzeko 18 hilean behin), 1.200 langile gehiago sartzen dira plantillan. Itxieraren ondorioz, eskualdeko **3 biztanletik 1ek** alde egitea aurreikusten da, eta biztanleri aktiboaren %36a murriztea.
- **Aberastasuna:** **urtero 97 milioi euro baino** gehiagoko ekarpena egiten dio inguruneari, Extremadurako industria-sarearen herena izanik, eta jarduera eteteak 91 milioi euroko eragin negatiboa izango luke Extremadurako ekonomian.

#SALVEMOSALMARAZ

“Salvemos Almaraz”^{*} ekimena Almarazko zentral nuklearraren I. eta II. unitateen operazioa luzatzeko beharraz kontzientziatzeko sortu da, hauen itxiera 2027 eta 2028rako aurreikusita dagoen, hurrenez hurren. 2024a oso urte garrantzitsua da aipatutako helburua lortzeko, izan ere, itxiera-erabakia baztertzeko eta zentralaren bizitza luzatzeko epemuga da aurten .

Jóvenes nucleares^{**}-ek epe luzera begiratzen du, gaur egun ingurumenaren, ekonomiaren eta energiaren arloan hartutako erabakiek gehien eragingo dioten belaunaldiaren ordezkokoak izanik. Horregatik, Almarazko zentral nuklearraren operazioa 2027tik aurrera luzatzearen alde egiten dugu, zentral nuklearraren itxieraren ondorio negatiboak ekiditeko, emisioei, energia segurtasun/fidagarritasunari, eta garapen sozial eta ekonomikoari dagokienez.

ITURRIAK:

- **Osasunaren Mundu Erakundea (OMS):** Etxeko kutsadura atmosferikoa 2020.
- **Almaraz - Trillo Zentral Nuklearrak (CNAT):** Argitalpenak - Seihileko txostena CN Almaraz - 2023ko bigarren seihilekoa CNAT.
- **Foro nuklearra:** Espainiako zentral nuklearren eguneko ekoizpena 2023.
- **Espainiako Sare Elektrikoa (REE):** Sorreraren isuriak eta CO₂ isurtze-faktore baliokidea 2023an (sistema elektriko nazionala).
- **Zentral Nuklearren Eremuetako Udalerrien Elkarte (AMAC):** Almarazeko zentral nuklearra ixtean izango duen eragin ekonomiko eta soziodemografikoari buruzko azterlana. 2021eko azaroa.
- **Energiaren Nazioarteko Agentzia (AIE):** Elektrizitatea ekoizteko aurreikusitako kostuak 2020.

* "Almaraz salbatu" espanyolen.

** "Gazte Nuklearrak" espanyolen.